



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

NÚMERO  
100.  
ZENBAKIA

100. INFORMAZIO BULETINA

> 2015ko Maiatza



GIPUZKOA



## NABARMENDU BEHARREKOA

### > **GIPUZKOA EUROPAN** aldizkariak 100 ale egin ditu eta sekzio berri batekin ospatuko dugu, Europako deialdi nagusienekin

2004ko uztailetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak **Gipuzkoa Europan** aldizkaria argitaratzen du. Aldizkari horretan, hileroko biltzen da Gipuzkoari eta Europar Batasunari buruzko gaurkotasuna, betiere, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako jardueretarako duen eraginaren eta interesaren ikuspegitik, baita Lurraldeko gainerako administrazioen eta eragile sozioekonomikoen aldetik ere Europa 2020 Estrategiaren eta Komunitateko Kohesio Politikaren alorrean.

Azken 11 hilabeteetan, **Gipuzkoa Europan** aldizkariaren bidez, Europar Batasuneko Egitura Funtsen kofinantzaketarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako udalek kudeatuta Gipuzkoan izan diren jarduera guztien berri izan dugu. Horiek egindako aurrerapenari buruzko informazioa eta zerikusia duten albisteen berri ematen da.

Orain, aldizkariako 100. alearen argitalpena dela eta, dagoeneko eskuragarri dauden gaikako 4 sekziorekin egiten du bat. Sekzio berri batek azken hilabeteetan argitaratutako Europako deialdi nagusiak bilduko ditu. Aldizkarian bilduko diren deialdiak aukeratzeko hauek hartuko dira irizpide gisa: gaiak, egokitasuna eta hautagaiak izan daitezkeen eragileen aukeragarritasuna.

*Informazio gehiago:*

***Sekzio berria EUROPAKO DEIALDIAK***



### > “Non ikusten duzu Europa Euskadin?” gazteentzako argazki-lehiaketaren sariak entregatu dira

Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Sailak gazteentzako argazki-lehiaketako 4. edizioko sariak entregatu ditu: *Non ikusten duzu Europa Euskadin?*

Eskualdeen Garapenerako Europako Funtzaren (EGEF) Euskadiko Programa Eragilearen komunikazioaren testuinguruan Ogasun eta Finantza Sailaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak antolatutako lehiaketa honek Euskadin EGEF Funtsek finantzaturako ekimenak eman nahi ditu ezagutzera. Bestalde, Europa Euskadiko gazteriarengana gerturatu nahi du eta Europak hurbileneko ingurunearen garapenari egindako laguntzan egindako ekarpenari buruzko ikuspegia bildu nahi du.

Epaimahaikoak argazkirik onenari emandako lehen saria Laukizeko Iñigo Deba Ayarzari egokitu zaio, bigarren saria Bilboko Jaime Asúa Alvarezek jaso du eta Facebooken boto gehien jaso dituen argazkia Durangoko Aritz Eguren Gurruchagarena da.

Facebook sare sozialaren bidez antolatutako lehiaketak 8000 jarraitzaile inguru lortu ditu.

*Informazio gehiago:*

[www.facebook.com/feder.ejgv.euskadi.eus](http://www.facebook.com/feder.ejgv.euskadi.eus)



### > Europako Eguna ospatzeko Elkarrekin Foroaren lehenengo edizioa Urretxun izan da

Europako Eguna dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta, Elkarrekin Foroaren lehenengo edizioa antolatu da Urretxun.

Martin Garitano Diputatu Nagusia, Jon Peli Uriguen Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Foru Diputatuarekin eta Iker Ruiz de Eginok Kanpo Harremanetako zuzendariarekin batera Foroan egon dira, non udal arduradunek hainbat esperientzia trukatu dituzte kanpo proiektzioa eta Gipuzkoako udalerrien eta beste herrialde batzuetako arteko senidetzeak ardatz hartuta.

Diputatu nagusiak honako hau adierazi du: “Europaren aldeko apustua egiten dugu, baina pertsonak -eta ez merkatuak- oinarri dituen Europa baten aldekoa. Europa solidarioagoa, burokrazia gutxiago duena, eta herriek eta aniztasunak toki gehiago eta ordezkartza gehiago dutena”.

Foru Aldundiak udalerrien arteko senidetze proiektuak babesten ditu Elkarrekin programaren bidez. “Udaletako teknikari eta arduradun politikoek arlo horretan Urretxu, Antzuola eta Idiazabalgo udalek abian jarri dituzten ekimen arrakastatsuak ezagutzeko aukera izan dute; Idiazabalek, esate baterako, gazten jatorri-deiturari izena ematen dioten Europako udalerrri guztiak bildu ditu elkarte batean”.

Informazio jardunaldian erakusketa bat ere izan da, eta amaitzeko, aurrekua, Europako himnoa, eta bandera igoera diputatu nagusiaren eskutik. Diputatu Nagusiak eta Urretxuko alkatea Oihane Zabaletak Europako bandera igo dute Elkarrekin foroaren amaitutzat emateko.

Informazio gehiago:

<http://www.urretxu.eus/urretxu/de/ielkarrekin-foro-lokala-urretxun-gipuzkoan-eredu.asp?cod=10211&nombre=10211&nodo=&orden=False&sesion=14>

<http://kanpoharremanak.net/jarduerak.php?op=8>



### > Gipuzkoako bederatzi tituludun atzerrian trebatuko dira Elkano programari esker

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Gipuzkoako bederatzi tituludun hainbat herrialdetara joango dira laster atzerrian ezarrita dauden Euskadiko enpresetan sei hilabetez (hamabi hilabetera arte luzagarriak) laneko praktikak egitera.

EHUk eta Euskadiko Elektronika, Informatika eta Telekomunikazioen Klusterrak (GAIA), Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin, sustatutako Elkano Nazioarteko Mugikortasun Beken Programaren VII. Edizioko parte-hartzaileak dira.

Edizio honetan, bi tituludun Uruguaira joango dira laneko praktikak egitera; beste bi Kolonbiara joango dira, beste bi pertsonak Alemanian egingo dituzte praktikak eta gainerakoak Belgika, India eta Hong Kongera joango dira. Aipatutako herrialdeetan urtebete egongo dira EIKT sektoreko Euskadiko enpresetan (esate baterako: Relais Internacional, EPOSS, Evandti, Prestomedia, Rinder, Fraunhofer) laneko praktikak egiteko.

Hauek dira 2006an martxan jarri zen eta dagoeneko Gipuzkoako 66 tituludunek parte hartu duten Elkano Programaren helburuak: titulatu berria den ikaslearen mugikortasuna sustatzea; kompetentzia profesionalak diziplina anitzeko nazioarteko taldeetan hobetzea, eta enplegagarritasuna edo ikaskuntza erraztea. Era berean, Programak erantzuna eman nahi dio Euskadiko enpresek nazioarteko alorrean ikuspegia eta esperientzia duten profesionalak izateko beharrari.

*Informazio gehiago:*

<http://www.ehu.eus/es/web/enplegua/elkano-bekak>



### > **EU-Go! Europar Batasunak eskaintzen dituen mugikortasun-aukerak ezagutzeko on line joko**

Europako Batzordeak *EU GO!* plazaratu berri du, Europar Batasunak hezkuntza, prestakuntza eta lan arloan gazteei eskaintzen dizkien mugikortasun-aukerak ezagutzera emateko joko soziala.

Jokoak Facebook profilaren bidez funtzionatzen du eta jokalariei Europan zehar bidaiatzeko aukera eskaintzen die pertsonaia birtual baten bidez, Europako mugikortasun-programa desberdinak ezagutzuz. Jokoan aurrera egiteko, jokalariai hainbat jarduera egin beharko ditu: hizkuntzak ikasi, Erasmus programan parte hartu, beste herrialdeetan lana bilatu, boluntariotza-programetan parte hartu edo EURES Europako okupazio-sareko zentroak bisitatu. Enpresa sortuz gero edo proiektu ekintzaile batean parte hartuz gero ere saria jasoko du jokalariai.

Helburu horiek guztiak lortzeko, jokalariek tresnak, programak eta Europako Batzordeak eskaintzen dituen erraztasunak ezagutu eta erabili beharko dituzte, hauek esate baterako: Europass, Europako Osasun Txartela, Erasmus programa, ekintzaile gazteentzako programa, EURES laneko sarea edo Boluntariotzako Europako Zerbitzua, beste batzuen artean.

*Informazio gehiago:*

<http://www.eugogame.eu/>



## KOHESIO-POLITIKA

### > Euskadiko nekazaritza sektorerako 2015eko NPK laguntzen deialdia

Eusko Jaurlaritzak 2015eko kanpainarako Nekazaritza Politika Komuneko (NPK) laguntzen deialdia onartu du. 47 milioiko zenbatekoa hartu du kontuan 2015eko ekitaldirako. Laguntza horiek osotasunean finantzatuko dira Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (FEAGA) kargura, eta erakunde ordaintzailearen, exekutibo autonomoaren, bidez gauzatuko dira.

Kopuru horretatik 26 milioi oinarritzko ordainketari dagokio, 14 ingurumenerako praktika onuragarriak aplikatzeko "ordainketa berdeari", 5 milioi horiekin zerikusia duten ordainketei, eta gainerakoa jarduera hasi duten gazte nekazariei eta esplotazio txikien erregimen erraztuari.

Interesdunek foru-aldundien mendekoak diren Eskualdeko Nekazaritza Bulegoetan aurkeztu beharko dituzte eskaerak uztailaren 15a baino lehen. Eskaeran, esplotazioko partzela guztiak zerrendatu beharko dituzte, baita erabilerak ere. Proposamen guztiak aztertu ostean, Erakunde ordaintzaileak laguntzak ordainduko ditu abenduaren 1etik aurrera, Europako araudiak zehazten duen moduan.

Nekazaritza Politika Komunaren (NPK) zuzeneko laguntza horien helburua belaunaldien arteko txanda, klimarako mesedegarriak diren nekazaritza-praktikak eta ingurumena sustatzea da, baita zailtasunak dituzten sektoreetan edo eskualdeetan produkzio maila jakin batzuk mantentzea eta nekazari txikiei administrazio karga murriztea ere.

*Informazio gehiago:*

[http://www.euskadi.eus/r01hProxyWar/r01hProxy\\_wl11\\_inter\\_boletin\\_apps1/bopv2/datos/2015/05/1502277a.pdf](http://www.euskadi.eus/r01hProxyWar/r01hProxy_wl11_inter_boletin_apps1/bopv2/datos/2015/05/1502277a.pdf)



### > Europa eta Gipuzkoako Foru Aldundia izango dira EHUko udako ikastaroetan

Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroen XXXIV. edizioak ikastaroen, mintegien, topaketen eta jardunaldien aukera zabalaren barruan Europarekin lotutako ikastaroen kopuru handia biltzen du. Horietako batzuetan, modu aktiboan parte hartu eta lagunduko du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Besteak beste, ikastaro hauek nabarmendu behar ditugu:

- Europari buruzko mintegia. Europaren azterna. Populismoen eta putinismoaren indarraren artean [\(+info\)](#)
- EBko egungo arriskuak: desberdintasun sozioekonomikoak, politikoak, fiskalak... [\(+ info\)](#)

Gipuzkoako Foru Aldundiak parte hartzen duen beste ikastaro batzuk:

- Egoera pertsonala, soziala eta kulturala aldatzeko Mugimendu Sozial baten finkapenerantz [\(+ info\)](#)
- Berrikuntza Politikoa: Erreforma Konstituzionala, Autogobernua, Erabakitze Eskubidea eta Independentzia [\(+ info\)](#)

*Informazio gehiago:*

<http://udaikastaroak-dev.i2basque.es/portal/index.php/es.html>





### > Euskadik eta Akitaniak osasunari eta zahartzeari dagokionez berrikuntza arloan batera lan egiteko Ekintza Plana adostu dute

Eusko Jaurlaritzak eta Akitaniako Eskualdeko Kontseiluak laneko jardunaldi bat ospatu dute maiatzaren erdi aldera Bordelen. Bertan, 2014ko abenduan bi eskualdeek sinatu zuten Elkar ulertzeko Memoranduma garatuko den behin betiko Ekintza Plana adosteari ekingo zaio. Osasunean eta zahartzean berrikuntzaren arloan elkarrekin lan egitea da helburua.

2015 eta 2016 artean garatuko den Ekintza Plan bateratuak hiru jarduera arlo zehatz hartzen ditu kontuan: paziente kronikoaren osasun-arretarako ibilbidearen antolaketa eta informazio-sistemak; patologia kronikoak ulertzea (bereziki diabetesa eta onkologia) eta zahartzea, epidemiologian ikerketa-gaitasunak mobilizatuz; eta berrikuntza eta gailu berriak gaixo dauden pertsonak eta adinekoak etxean zaintzeko eta anbulatorioan arreta emateko.

Jarduera-ildo horiek lantzeko, bi eskualdeen artean laneko topaketak (study tours) egingo dira praktika eta eredu hobekak partekatzeko, era berean, bi osasun-sistemetako profesionalen artean informazioa trukatzeko eta sarbidea errazteko datu-base bateratua sortuko da. Ekintza Planak Europako deialdietarako berrikuntzako eta ikerketako proiektu bateratuak aurkezteko aukera ere biltzen du.

*Informazio gehiago:*

[https://apps.euskadi.eus/nota\\_prensa/2014/euskadi-y-aquitania-trabajan-conjuntamente-en-el-campo-de-la-innovacion-en-salud-y-envejecimiento/r85-pkactu02/es/?r01-Domain-Origin=net](https://apps.euskadi.eus/nota_prensa/2014/euskadi-y-aquitania-trabajan-conjuntamente-en-el-campo-de-la-innovacion-en-salud-y-envejecimiento/r85-pkactu02/es/?r01-Domain-Origin=net)



### > Europako Batzordeak Espainia-Frantzia-Andorra INTERREG (POCTEFA) 2014-2020 programa onartu du

Europako Batzordeak Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA 2014-2020) Interreg VA Programa onartu zuen maiatzaren 19an. Espainia, Frantzia eta Andorrako mugaz gaindiko lurraldearen garapen iraunkorra sustatzea da helburua, Pirinioen bi aldeetako eragileek diseinatutako eta kudeatutako mugaz gaindiko lankidetzaproiektuen kofinantzaketaren bidez.

POCTEFA 2014-2020 programak Eskualdeko Garapenaren Europako Funtsetik (EGEF) etorritako 189 milioi euroko aurrekontua du aldi berri honetarako, Programaren finantzaketa osoaren % 65a ordezkatzuz. Horrek esan nahi du lurraldean proiektuen inbertsioaren guztizko balioaren 273 milioi euro inguru.

2014-2020 aldian, programak eskualdeko arazo komunei irtenbidea bilatzen oinarritzen diren proiektuak kofinantzatu ditu. Arlo honetakoak izango dira: ingurumena, I+G, mugikortasuna, prestakuntza eta abar, betiere, 15 milioi biztanle inguru dituen lurralderako.

*Informazio gehiago:*

<http://www.poctefa.eu/arboll/index.jsp?id=59e66388-fcf1-4f7e-8934-dc75c926d4f2>



## EUROPA 2020 ESTRATEGIA

### > BCBL-k beste bost ikerlari txertatuko ditu 'Marie Skłodowska-Curie' Europako programari esker

Basque Center on Cognition, Brain and Language-k (BCBL) 'Marie Skłodowska-Curie' programatik datozen bost ikerlari txertatuko ditu, Europako Komunitateko HORIZON 2020 ekimenaren testuinguruan sustatuta doktore-prestakuntza eta herrialdeen arteko talentu zientifikoaren mugikortasuna sustatzeko

Programak emandako ekarpen ekonomikoari esker, hain zuzen ere 2014ko programaren deialditik etorritako 838.644 euro, 5 ikerlari berriek 2015 eta 2016 artean hasiko dituzte proiektuak erakunde zientifikoaren bikaintasunari ekarpena egiteko helburuarekin. Era berean, garuna eta hizkuntza funtzioaren arteko harremanen ezagutza neurozientifikoan (hori da BCBLren espezializazio arloa) sakontzen lagunduko dute.

Basque Center for Cognition, Brain and Language (BCBL) Donostian kokatutako diziplina anitzeko Nazioarteko ikerketa-zentroa da. Ikerbasquek, Innobasquek, UPV-EHUK eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarrekin sortu zuten eta kognizioa, garuna eta hizkuntza aztertzen ditu. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen parte da zentroa eta hasieratik izan du Europako konfinantzaketa EGEF 2007-2013 Euskadiko Programa Operatiboaren bidez.

*Informazio gehiago:*

<http://www.bcbl.eu>

<https://ec.europa.eu/programmes/horizon2020/en/h2020-section/marie-skłodowska-curie-actions>



### > Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuko enbaxada ibiltariak Europan zehar hasi du bidaia

Donostian kulturaren Europako hiriburutza laster izango dela eta, Hiriburutzaren Bulegotik enbaxada ibiltaria jarri da martxan. BIZIZ izenpean, enbaxada ibiltari hau bizikletekin sustatutako bost ibilgailuz egongo da osatuta. Bizitzaren Itsasargiaren edukiekin zerikusia duten bidaia tematikoak egingo dituzte 2015 eta 2016 artean: arkitektura, gastronomia, aniztasuna, komunitateak eta osasuna.

Espedizioek Europako bost hiritatik abiatuko dituzte bideak (Las Palmas, Atenas, Cristiania Kopenhage-n, Constanza eta Kaliningrado) eta bidaiaren amaieran Donostian topatuko dute elkar, mugikortasunaren asterekin bat eginez. Donostiarekin senidetutako hiriak bisitatzeko moduan diseinatu dira ibilbideak, baita mugikortasun arloan estrategikoak eta erreferenteak diren beste batzuk bisitatzeko moduan ere.

Biziz-ez gain, DSS2016EUK beste bi enbaxada izango ditu eta horiek Hiriburutza ordezkatuko dute Europako gainerako tokietan. Bakoitza DSS2016EUko programaren itsasargi bateko edukietara egongo da lotuta.

DSS2016EUREN helburu diplomatikoa bi alderdik osatuko dute. Batetik, EuroTransit multimedia-erredakzioa izango da. Horrek gatazkarekin lotura duten Europako kokagune desberdinetatik emitituko du eta Bakearen Itsasargia ordezkatu du. Bestetik, TOSTA CC itsasoko bidaia izango da, Atlantikoko txikizkako hizkuntza-komunitateetan zehar, eta Ahotsen Itsasargia ordezkatu du.

*Informazio gehiago:*

<http://www.dss2016.eu>

<http://dss2016.eu/es/noticias/item/852-biziz-semana-1-primeros-problemas-tecnicos>



## DOKUMENTU INTERESGARRIAK

### > SUDOE Programaren Youtube kanala

Bideo kanala Europako Hego-mendebaldeko Espazioko Lurraldeen arteko Lankidetzarako Programan (SUDOE). Programa honek eskualdeko garapena babesten du EGEF tarteko dela nazioz gairako proiektuen kofinantzaketaren bidez.

Kanal honen bidez, Programaren hainbat deialditan onartutako proiektuei buruz argitaratutako bideo guztiak ikus daitezke.

*Informazio gehiago:*

<https://www.youtube.com/channel/UCeGx2edoB32beRc9dbKA2vw/videos>

### > FI-COMPASS, finantzaketa-tresnei buruzko aholkularitza-plataforma (Europako Batzordea eta BEI)

On line plataforma, Europako Batzordeak Inbertsioen Europako Bankuarekin (BEI) elkarlanean martxan jarritakoa. Europako finantzaketa-tresna desberdinen gainean aholkularitza eskaintzeko helburuarekin, zehazki, Europako Egitura eta Inbertsio Funtzak (FEIE) eta Enplegu eta Gizarte Berrikuntzarako Europako Programa (EASI).

*Informazio gehiago:*

<http://www.fi-compass.eu/>



### > EUROBASK Kazetaritza Saria Euskadi Irratiko "Boulevard" irrati-programari

Eurobask Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluak Euskadi Irratiko 'Boulevard' irrati-programa saritu du 2014ko apirilean Europako Parlamentutik egindako programak Europarako ideien eta ekintzen elkarrizketari egindako ekarpenagatik.

'Boulevard'ek Bruselatik Batasunaren Estatuak islatu zuen azken urteetako Europako etorkizunerako hauteskunde garrantzitsuenak baino hilabete lehenago. Austeritate-politikak aplikatu dituztelako txiroenak diren herrialdeen ikuspegia izan zuen; baita politika horiek bultzatu zituenaren ikuspegia ere, Alemaniarena hain zuzen. Immigrazioaz, txertatze-krisiaz, Estaturik gabeko Europako nazioen eskaerez eta Europako politikek herritarren eguneroko bizitzan duten eraginaz hitz egin zuen.

*Informazio gehiago:*

<http://www.eitb.eus/es/radio/radio-euskadi/programas/boulevard/>

### > INTERREG 4C Story

2007-2014 programazio-aldian INTERREG 4C programari buruzko informazio zehatza helburu duen txostena. Gainera, INTERREG EUROPE programa berria sortzeko jarraitu den prozesua aurkeztuko du.

Txostenak, formatu digital dinamiko eta intuitiboaren bidez, egindako jardueri buruzko datu garrantzitsuak, finantzatutako proiektuak eta bazkide parte-hartzaileak eskaintzen ditu.

*Informazio gehiago:*

<http://report.interreg4c.eu/>



## EUROPAKO DEIALDIAK

Jarraian, Gipuzkoatik interesgarriak izan daitezkeen azken hilabeteen argitaratutako deialdi nagusiei egindako erreferentziak biltzen dira. Deialdiak aukeratzeko orduan, irizpide gisa hartu dira horien gaia, hautagaitzak aurkezteko epea, egokitasuna eta hautagaiak izan daitezkeen eragileen aukeragarritasuna.

- **Langileen mugikortasuna Europan. Administrazio-elkarlana hobetzea eta informaziorako sarbidea – 2015 (EaSI programa) ([+ info](#))**
- ***Gizarteratzeko eta txirotasuna murrizteko diru-laguntza operatiboak lortzeko proposamen-deialdia (VP/2015/010) ([+ info](#))***
- ***Bioaniztasuna hobetzeko emaitzetan oinarritutako ordaintze-sistemak probatzeko proba pilotuak (DG ENV/RBAPS 2015) ([+ info](#))***
- **Sektore turistikoan hazkunde lehiakorrari eta iraunkorrari babesa ematea - (2015 - COSTOUR-2015-3-04) ([+ info](#))**
- **Finantza-tresnak erabiltzeko aukera ebaluatzeko hainbat eskualderen laguntza EGEF - EGIF - FEADER – (2015CE16BGT001) ([+ info](#))**
- **Proposamenen deialdia – Enpresetako ordezkarien informazioa, kontsulta eta parte hartzea – (VP/2015/003) ([+ info](#))**
- ***Ijitoen gizarteratzeko jarduerak babesteko proiektuen deialdia (JUST/2014/RDIS/AG/DISC) ([+ info](#))***
- **Eskualdeko Ekonomia Bateratasuna (TREC) – Taldeen eta zentro teknologikoen artean elkarlana sustatzeko proiektu pilotuak (179/G/GRO/PPA/15/8641) ([+ info](#))**
- **Ekintza eta plangintzako 20 sare sortzeko deialdia - URBACT III - Network ([+ info](#))**